



LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO
SAILBURUORDEAREN JARRAIBIDEAK, HASIERAKO LANBIDE-
PRESTAKUNTZAKO PROGRAMEN ANTOLAKUNTZARI ETA
SEGIMENDUARI BURUZKOAK
2010-2011 IKASTURTEA

Ondorengo jarraibideak hasierako lanbide-prestakuntzako programak ematen dituzten Euskal Autonomi erkidegoko ikastetxe guztiek bete beharko dituzte.

Ikastetxearen zuzendariak behar diren neurriak hartu beharko ditu ikastetxeko irakasle guztiek jarraibide hauen eduki osoa ezagutzen dutela bermatzeko.

1.- HASIERAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZAKO PROGRAMEN HELBURUA

Hasierako lanbide-prestakuntzako programen helburua hauxe da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarritzko titulua lortu ez duten 16 urtetik gorako ikasleei, lan-munduan kalitateari eutsiz sartzeko eta araututako irakaskuntzako ikasketak egiten jarraitzeko aukera emango dieten oinarritzko prestakuntza eta lanbide-prestakuntza eskaintzea; horrela, gizarteratzen lagunduko zaie.

2.- NORENTZAT

Programaren hasierako urteko abenduaren 31 baino lehen 16 eta 18 urte bitarteko adina beteta duten ikasleak sar daitezke hasierako lanbide-prestakuntzako programetan; betiere, hezkuntza-sistema Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortu gabe eta, beraz, ez badute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratu.

Salbuespen gisa, ikaslearen eta haien aita-amen –edo, behar izanez gero, legezko tutoreen– adostasunarekin, adin hori hamabost urtera jaitsi ahal izango da zenbait ikaslerentzat: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ikasturtea egina dutelarik, hirugarrenera igarotzeko baldintzatan ez egon eta etapan behin errepikatu dutenentzat, alegia. Talde bakoitzean bi ikasle gehienez sartu ahal izango dira.

Ikasle horiek programan sartzeko, gizarte-hezkuntzako txostena eskatuko du, ikaslearen ebaluazioa jasoko duena, honako hauek adieraziz: prestakuntza-hezkuntzako inguruari buruzko alderdiak eta familia- eta gizarte-inguruari buruzko alderdiak, bai eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesurako orientabideak ere (2008ko ekainaren 10eko Aginduaren I eta II eranskinak).



Ikaslea DBH ikasten ari den ikastetxeak igorriko dio gizarte-hezkuntzazko txostena Hezkuntzako Ikuskaritzari.

Hezkuntzako Ikuskaritzak txosten bat igorriko dio Lurralde Ordezkaritari, ikaslea hasierako lanbide-prestakuntzako programak ematen diren ikastetxe batean eskolatzeko baimena eman ala ez erabaki dezan.

Ikasle hauek ohizko matrikulazio-epean (uztailaren 1etik 13ra) matrikulatu ahal izateko behar diren txostenak lortuta izan beharko dituzte.

3.- PROGRAMAREN EGITURA

Hasierako lanbide-prestakuntzako programek egitura modularra izango dute, eta ikasturtean zehar burutuko dira. Ikasturteetako bakoitzak 1050 orduko iraupena izango du, eta asteko ikastaldia, berriz, 30 ikastordutakoa izango da.

Hasierako lanbide-prestakuntzako programek honako egitura modular hau dute:

3.1.- Nahitaezko moduluak

- a) **Berariazko moduluak:** programaren curriculumean ezarritako lanbide-profilaren gaitasunak garatzeko eta eskuratzeko edukiak zehazten ditu.
- b) **Prestakuntza-modulu orokorrak:** berariazko moduluak aprobetxamenduz egiteko oinarrizko gaitasun nahikoak garatzeko eta eskuratzeko eta erdi-mailako prestakuntza-zikloetara iristeko probara aurkezteko edukiak ezartzen dituzte.

Bi eremutan banatuko dira:

Komunikazio- eta gizarte-arloa. Hona hemen moduluak: Euskal hizkuntza eta literatura, Gaztelania eta literatura, Gizarte-zientzia eta Herritartasunerako hezkuntza.

Zientzia- eta teknologia-arloa. Hona hemen moduluak: Matematika, Teknologia eta Natura-zientziak.

- c) **Orientazio eta tutoretzako modulua:** edukiak eta jarduerak zehazten ditu, ikasleen beharizan eta igurikapenen arreta pertsonalizatua ahalbidetzeko eta tutore-ekintza indartzeko helburuz.

**d) Lantokiko Bertako Prestaketa modulua.****3.2.- Borondatezko moduluak**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortzera daramaten edukiak ezarriko ditu; eduki horiek, hain zuzen ere, ikasleen berreskolatzea laguntzeko eginkizuna dute, prestakuntza prozesua jarrai dezaten hezkuntza-sistemaren barruan.

Modulu horien curriculumak erreferentziatzen izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Helduen Hezkuntzarako garatzen dituen prestakuntza-ekintzen inguruan ezartzen duena (2008ko urriaren 31ko Agindua, azaroaren 25ekoEHAA) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortzeari dagozkion ekintzak, hain zuzen ere.

Lehenengo ikasturtean, gutxienez, Kualifikazioen Katalogo Nazionalako 1. mailako lanbide-prestakuntzen gaitasunak eskuratzea ahalbidetzen duten edukiak emango dira.

Bigarren ikasturtean, berriz, programaren curriculumeko lanbide-profilean ezarritako gainerako gaitasunak sakontzeko eta osatzeko beharrezko diren edukiak emango dira, 1.mailako profesionaltasuneko ziurtagiriari dagozkien kapazitateak lortzen dituztela ziurtatuta, eta baita Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloetara iristeko probara aurkezteko edukiak ere.

Bigarren ikasturte honetan, konpetentzia-maila nahikoa lortu duten ikasleentzat, nahitaezko modulu orokorren edukiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortzera daramaten borondatezko moduluen edukiengatik ordezkatu ahal izango dira.

4.- KOORDINAZIOA HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEKIN

Programa hauek ematen dituzten, baina Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako graduatu-titulua emateko baimenik ez duten ikastetxe eta erakundeentzat, Helduen Hezkuntzako ikastetxeekin koordinazioa ezartzen da, 2008ko abenduaren 22ko ebazpenak (urtarrilaren 20ko EHAA) adierazten duen bezala.

5.- ORDUTEGI-BANAKETA.

Asteko ikastaldia 30 ordukoa izango da ikasleentzat, astelehenetik ostiralera, eta 35 astetan zehar honela banatuta:

- **Berariazko moduluak:** lehenengo ikasturtean, 18 orduko iraupena gutxienez, eta 15 ordukoa bigarren ikasturtean.



- **Orientazio eta Tutoretzako modulua:** astean 2 ordu.
- **Modulu orokorrak / Borondatezko moduluak;** Astean 8 orduko iraupena lehengo ikasturtean eta 11 ordukoa bigarrean.

Lan-harremanik gabeko enpresako praktikaldi bat ere egingo dute, **Lantokiko Bertako Prestaketa modulua** izenekoa. Modulu horrek 330 orduko iraupena izango du, eta programako bigarren ikasturtean egingo da, ikasturte horretako azken hamaika asteetan. Modulu honen asteko iraupena 35 ordukoa izan ahal da gehienez.

Modulu hau ikastetxeak antolatuko du, ikasturtean zehar, bukaeran edo lan-harremanik gabeko enpresako praktikaldiaren eta ikastetxeko prestakuntza fasearen artean txandatu. Nolanahi ere, LBP moduluen hasiera baino 15 egun lehenago, Borondatezko Bertako Moduluen proiektua bidali beharko du Etengabeko Prestakuntzako Zuzendaritzara, aukeratu den antolakuntza eta ikasleen eta enpresen zerrenda zehaztuz..

Programa osatzen duten moduluen edukia, iraupena eta hurrenkera zehaztu egiten da: moduluen currikuluma arautzen duen ebazpenean edota modulu orokorrak zehazten dituenan.

Ikasturtearen hasiera ezingo da irailaren 15a baino beranduago izan, eta ezingo da amaitu ekainaren 30a baino beranduago.

5.- TALDEAK ERATZEA

Taldeek, gutxienez, 10 ikasle izan beharko dituzte lehenengo ikasturtean, eta 8 bigarrean eta, gehienez 15. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dituzten taldeetan, gehieneko kopurua 12koa izango da, eta talde bakoitzean ezin izango dira sartu horrelako ezaugarriak dituzten bi ikasle baino gehiago.

Lanbide-profil berean ezin izango dira osatu bi talde baino gehiago, ez 1. ikasturtean eta ez 2.ean. Lanbide-profil berean bigarren talde bat osatzeko 1. ikasturtean guztira 30 ikasle beharko dira. Lanbide-profil berean bigarren talde bat osatzeko 2. ikasturtean guztira 20 ikasle beharko dira.

6.- IRAKASLEAK

Hasierako lanbide-prestakuntzako programetako prestakuntza-moduluetan eskolak eman ahal izateko egiaztatu behar diren titulazio-eskakizun orokorrak hauek dira:

**Berariazko moduluak:**

Lanbideko gaitasun-unitateei dagozkien berariazko moduluetan eskolak eman ahal izateko, lanbide-heziketako irakaskuntza emateko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoko 95. artikuluan zehazten diren titulazio- eta prestakuntza-eskakizun berberak eskatuko dira, eta programa bakoitzaren lanbide-profila zehaztuko duen ebazpenean ezarrita geratuko dira.

Prestakuntza-modulu orokorrak:

Prestakuntza-modulu orokorretan eskolak eman ahal izateko, Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoko 93. artikuluan (betiere, zazpigarren xedapen gehigarrian dioenarekin bat) zehaztutako titulazioa izatea beharrezkoa izango da. Dena dela, lehentasuna izango dute programa hauek zuzenduta dauden ikasleentzako hezkuntza-arretan eskarmentua eta prestakuntza egiaztatzen duten irakasleek.

Borondatezko moduluak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua lortzera bideratutako borondatezko moduluak irakatsi ahal izateko, beharrezkoa izango da Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoko 94. artikuluan zehaztutako titulazioa izatea.

7.- IKASLEEN IZEN-EMATEA

Ikasleen izen-ematea ikasleak programa egingo duen ikastetxean egingo da. .

7.1.- Ikastetxeek ohiko matrikula-prozedurei jarraiki egingo dute ikasleen matrikula hasierako lanbide-prestakuntzako programetan. Hautatutako ikasleen datuak **uztailaren 1etik 13ra** bitartean grabatu beharko dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako prestatu duen aplikazioan.

7.2.- Irailaren 1etik 10era bitartean ere zabalduta egongo da aplikazioa, eskaintzen diren taldeetan plazak osatu arte. Matrikulazio-epe hau bukatu ondoren aplikazioa itxita egongo da eta matrikulazio berrien eskaera Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan egingo da arrazoitutako eskabideen bitartez. Aipatutako dataren ondorengo izen-emateek dagokion Lurralde Ordezkararen oniritzia beharko dute.

8- IKASTETXEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

8.1.- Ikastetxe publikoek eta hitzartutakoek hasierako lanbide-prestakuntzaren programen programazioak sartuko dituzte beren Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan eta Ikastetxearen Urteko Planean. Programazio honen kopia bat eta amaierako ebaluazio-



txosten bat Lurralde Ordezkaritzako Osabidezko, Lanerako eta Helduen Hezkuntza Unitatean aurkeztuko dituzte.

8.2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen urteroko deialdi-aginduak subentzionatutako hasierako lanbide-prestakuntzako programak garatzen dituzten ikastetxeek agindu horretan dokumentazioa aurkezteari eta jasotako laguntzak justifikatzeari buruz ezarritakoari jarraituko diote.

9.- AKTAK ETA IKASKETA ZIURTAGIRIAK

9.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua emateko baimena duten ikastetxeek nahitaezko eta borondatezko moduluen akten kopiak (2008ko uztailaren 7ko Aginduaren II. Eranskina) bidali beharko dituzte Hezkuntza Ikuskaritzara.

Hezkuntza Ikuskaritzak graduatu tituluaren proposamenari oniritzia emango dio akta biak eta ikasketa ziurtagiriak aztertu ondoren.

9.2. Titulua emateko baimenik ez daukaten ikastetxeek nahitaezko moduluen akten kopiak (2008ko uztailaren 7ko Aginduaren II. Eranskina) bidali beharko dituzte Hezkuntza Ikuskaritzara. Halaber, HHiei nahitaezko moduluen akten kopiak helaraziko die, borondatezko moduluak ikasten dauden ikasleak baldin badauzkate, ikasle horiek borondatezko moduluak gainditu ondoren graduatu titulua ateratzeko proposatuak izan daitezten.

Gasteizen, 2010eko ekainaren 15ean

Lanbide heziketako eta etengabeko prestakuntzako sailburuordea

DAVID URZAINQUI URZAINQUI